

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Jendaurrean jartzea eta kobratzea Berantevillako industrialdeko ur homiduraren eta saneamenduaren tasa – 2020ko hirugarren lauhilekoa

I. JENDAURREAN JARTZEA

Berantevillako industrialdea edateko urez hornitzeko eta saneamendurako tasari dagokion 2020ko ekitaldiko hirugarren lauhilekoko kontribuzio erroldak egin dira, bai eta alkatearen otsailaren 16ko 16/2021 Dekretuaren bidez onetsi ere.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Kontribuzio erroldak jendaurrean jartzeak haien likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitute Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikulua 3. paragrafoan eta Kudeaketa, Dirubilketa eta Ikuskatzearen Udal Zerga Orokorrak 2.1. artikuluan.

Interesa dutenek espedientea udal bulegoetan aztertu ahal izango dute. COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, aldez aurretik hitzordua eskatzea gomendatzen da, 945337059 telefonora deituta edo aberantevilla.secretaria@ayto.araba.eus mezu elektronikora idatzita.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

II. KOBRAZTEKO ALDIA

Borondatezko aldiaren ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2021eko martxoaren 23tik maiatzaren 23ra.

Borondatezko aldiaren ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banku erakundeetan helbideratutako ordainketak 2021eko martxoaren 31n igorriko dira.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, zergadunei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria, dirua Kutxabankeko bulegoan edo transferentzia bidez sar dezaten.

Zergadunei ohartarazten zaie komenigarria dela beren zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Halaber, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Berantevillako Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2021eko otsailaren 16a

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY